Atención Primaria de Salud
Uso Seguro Adecuado y Prudente de los Medicamentos
Medicalización de la Vida

tercer festival internacional de cortos y fotografía

CC BY NC SA

organiza:

poli medicado Labs

aulabs.org
ClinicArea

NAZIOARTEKO LABURMETRAI ETA ARGAZKIEN III. JAIALDIA

OINARRIAK

1. **ZERTAN DATZA JAIALDIA?** Laburmetrai eta argazkiak hurrengo gai/en inguruan aritu beharko dira:
   a) Lehen mailako arreta. Funtsezko osasun-laguntza bezala aditua, banako guztiak eta komunitateko familia oro, haientzat baliabide onargarrien bidez, bere parte-hartze osoarekin eta komunitaterako kostu eskuragarriak dituena.
   b) Medikamentuen erabilera seguru, egoki eta zentzuduna. Botiken erabilerakin lotutako beharrezkoa ez den kalte, erreal edo potentzialaren absentzia bezala ulertua
   c) Bizitzaren Medikalizazioa. Eguneroko bizitzaren gertaerak osasun-arazo bihurtzen dituen prozesua bezala ulertua, zeinetan egoera hauei osasun-profesional ezberdinengatik jarraipen eta tratamenduak ezartzen zaizkien.

2. **NORK PARTE HAR DEZAKE?** 18 urtetik gorako edozein pertsonak parte har dezake, bere herritartasuna edozein dela ere.

3. **ZENBAT LABURMETRAI edo ARGAZKI AURKEZTU DAITEZKE?** Nahi beste laburmetrai edo argazki aurkeztu daitezke.

4. **ZER EZAUGARRI BETE BEHAR DITUZTE AURKEZTUTAKO LABURMETRAIEK?**

a. Laburmetraiek gehienez 6 minutuko iraupena izango dute, hasiera eta amaierako karatula ofizialak kontuan izan gabe.

b. Edozein etxe komertzial, produktu edo zerbitzuren publizitate zuzena edo zeharkakoa, laburmetraia ez onartzeko arrazoia izango da.

c. Lehenengo 3 segundoetan lehiaketaren karatula ofiziala azaldu beharko da. Jarraian,

laburmetraiaren izenburua eta zuzendarien izen-abizenak jasotzen dituen karatula agertuko da, eta berauek hurrengo helbidean deskarga daitezke: www.polimedicado.org

d. Azken 3 segundoetan amaierako karatula azaldu behar da eta helbide honetan deskarga daiteke: www.polimedicado.org

5. ZEIN HIZKUNTZATAN AURKEZTU DAITEZKE LANAK? Laburmetraiak edozein hizkuntzatan aurkeztu daitezke. Erabilitako hizkuntza gaztelera edo ingelesa EZ den kasuetan, azpitituluak sartu behar dira aurretik aipatutako bi hizkuntzetako batean. Epaimahaiak aintzat hartuko du entzuteko desgaitasuna duten pertsonen ulermena errazteko helburuarekin gazteleraz zein ingelesezko azpitituluen erabilera.

6. ZER EZAUGARRI BETE BEHAR DUTE AURKEZTUTAKO ARGAZKIEK?

a. JPG formatua izan behar dute argazkiek.

b. Artxiboek ez dute 6 Megabytetatik (Mb) gorako pisurik izango.

7. NOLA PARTE HARTU? Parte hartu ahal izateko, geure web orrialdean (www.polimedicado.org) izena eman behar duzu eta 'Festival' izeneko atalean agertzen den formularioa bete. Formulario honetan, zure izen-abizenak, telefonoa eta e-maila adierazi behar dituzu. Gainera zure IFZ (espainiar nazionalitatea izanez gero), AIZ (Espainian bizi zaren atzerritarra bazara) edo Pasaporte zenbakia (Espainiatik kanpo bizi diren atzerritarrentzat) idatzi behar dituzu. Laburmetraiak hainbat zuzendari baldin badauzka, bakoitzak bere IFZ, AIZ edo Pasaporte zenbakia adierazi beharko du. Honetaz gain, laburmetraiaren izenburua eta honen sinopsi edo laburpena. Argazkiei dagokienez, hauen izenburua eta egilearen izena adierazi behar dira. Lan guztiak festival@polimedicado.org posta helbidera bidali behar dira (argazkiak zuzenean bidali eta www.wetransfer.com -en bidez laburmetraien kasuan).

8. ZEIN DA LANAK BIDALTZEKO EPEA? Zure lanak apirilaren 15etik hasita irailaren 15eko 24 orduak arte bidal ditzakezu. Behin lanak jasotzeko epea amaituta, sistema bi astez zabalik egongo da publiko orokorrak botoa eman dezan. Jarraian, bozken zenbaketa egingo da publikoaren saria egokitzeko eta epaimahaiak lehen saria eta accesita erabakiko ditu. Sariak 2014ko azaroan banatuko dira

9. SARIAK:

a. Lehen saria 1500 €

b. Bigarren saria 1000 €

c. Hirugarren saria 500 € (Publikoa)

d. Argazki onenaren saria 250 €

e. Argazki onenaren saria 250 € (Publikoa)

10. EPAIMAHAIAREN ERABAKIA: Epaimahaiaren erabakia Plasencian 2014ko azaroan ospatuko den sari-banaketa zeremonian aditzera emango da. Epaimahaiaren irizpideen arabera kalitate nahikorik ez duten lanik aurkeztuko balitz, sariak banatu gabe gera daitezke. Irabazleen

hautaketa epaimahaiari dagokio eta hartutako erabakia behin betikoa eta apelaezina izango da.

11. LEGEZKO ESKUBIDEAK. Autoreek, jaialdian parte hartzeagatik, euren lanaren titulartasuna *Laboratorio de PrácticasInnovadorasenPolimedicación y Salud* elkarteari doako eta borondatezko eran ematen diote. Edozein kasutan, lan hauek creativecommons 3.0 Aitortu - EzKomertziala - BerdinBanatu (by-nc-sa)lizentziapean babestuta geratuko dira.

Babeslea:

_____